

Ikasleei zuzendutako kontsulta eta babesari buruzko orientabideak

“GERTATU BADA, EGON GERTU” Sareko Indarkeriaren Aurkako Erreminta Kutxan parte hartzeko eskatzen zaienean ikasleei, gerta daiteke ustekabeko egoerak sortzea lantegia egitean.

Proiektu honetan parte hartzeko prozesuak nerabeen babesa ziurtatzeko nahikoa berme izan ditzan, garrantzitsua da jarduerarekin lotuta zer arrisku izan daitezkeen aztertzea eta arrisku horiek gutxitzeko babes-neurri batzuk hartzea, betiere bi printzipio hauek gidari hartuta: “minik ez egitea”, eta “haurraren interes gorena”.

1. Kontsulta prestatzea

Haurren eta nerabeen parte-hartzeak gardena izan behar du, aski informazio izan behar dute kontsultari buruz, eta, horrez gain, beren hizkuntzara egokituko da informazio hori, parte hartu nahi duten edo ez erabaki dezaten.

Kontsulta egin aurreko egunetan, partaidetzazko jarduera zer testuingurutan garatuko den azalduko zaie. Ildo horretatik, egingo duten lantegia barnean hartzen duen proiektuak zer helburu dituen eta zergatik den horren garrantzitsua adieraziko zaie. Ondo ulertu behar dute nola erabiliko den ematen duten informazioa.

2. Baimen informatua

Ikasleek borondatez hartu ahal izango dute parte kontsultan, eta kontsultaren iris-menari eta xedeari buruzko informazioa emango zaie. Ezin izango da neraberik behartu jardueran parte hartzera, eta, horrez gain, edozein unetan utzi ahal izango du parte-hartzaileak, hala egin behar duela iruditzen bazaio.

Lantegia egin aurretik, proiektuan parte hartzen duten nerabeen baimen informatua izan beharko da, euren borondatez parte hartzen ari direla ziurtatzeko.

3. Datuen tratamendua

Ikasleei galde-sortak egiten bazaizkie, lantegitik ateratako informazioa anonimoa da erabat, eta isilpeko izaera du. Lantegian zehar biltzen diren oharrak azterlana

egiteko eta emaitzei buruzko txostenak egiteko erabiliko dira soilik eta esklusibotasunez, modu agregatu eta anonimoan. Horrek ez du esan nahi familiei beharrezkoak diren baimenak eskatu behar ez zaizkienik.

4. Arriskuen analisia

Ikasleei indarkeriaren aurrean babesteari buruzko informazio pertsonalaz kontsulta egitean, honako egoera arriskutsu hauek sortu daitezke:

a. Kasu bat azaleratzea: lantegia egitean edo ondorengo egunetan, gerta daiteke indarkeria-kasu bati buruz zuzeneko lekukotasuna emateko ahaldunduta sentitzen den pertsona bat topatzea.

Arriskua murrizteko aplika daitezkeen neurriak:

- » Lantegia garatuko den unean ariko diren profesionalak gaitzea, kasuren bat azaleratzen edo agertzen bada nola jokatu jakin dezaten, l. eranskinean biltzen diren jarraibideak betez. Horrez gain, garrantzitsua da ondorenean ikasleekin harremanetan egongo diren irakasleak gaitzea, lantegian egindako gogoetaren ostean horrelako kasuren bat azaleratzen bada ere.
- » Indarkeria-kasu posible baten aurrean jarduketa-protokolo garbi bat izatea.
- » Indarkeria-kasu posible baten susmoa sortzen denerako zentroko protokoloa edo autonomia-erkidegokoa ere ezagutu behar du taldeak.
- » Ibilbide Orrian kontsulta egiteko, aholkatzeko, kasua bideratzeko, jakinarazteko eta salatzeke dauden baliabideak identifikatuta izatea.
- » Kasuak jakinarazteko ikasleek eskura izango dituzten zenbait kanal edo bide ezartzea.

b. Espero ez diren erreakzio emozionalak, lantegia egitean indarkeriaren aurrean norbera babestearekin lotutako galderez gogoeta egin ostean ikasleen artean izan daitezkeenak.

5. Kontuak ematea

Parte-hartze prozesua ez da bukatzen kontsulta amaitu eta informazioa bildu ondoren. Beharrezkoa da proiektua amaitzen denean parte hartu duten ikasleei zer-bait ematea bueltan, eta haien iritzia nola hartu diren kontuan eta egindako azterlanak zertarako balio izan duen azalduko zaie.

I. ERANSKINA: Nola jokatu kasu bat azaleratzen denean

Indarkeria-kasu posible baten berri ematen duen iturria biktima baten lekukotasuna denean, garrantzitsua da hura berriro biktima bihurtu dezagun saihestea; hau da, kasua jakinarazi duen nerabeari kalte handiagoa egingo ez dion erantzun bat eman beharko da.

Ilido horretatik, hartu kontuan honako puntu hauek:

- » Jakinaraztea da xedea, ez ikerketa. Kontua ez da biktimari galdeketa egitea.
- » Nerabearen lekukotasuna ebidentziazat hartuko da.
- » Prestatu egin behar da, eta nerabea babestuko duen eta erantzun egokia emango dion jarrera izan behar da.
- » Normalean, konfiantzazko lotura bat sortzen da biktimaren eta hartzailearen artean.

NERABE BATEN KONTAKETA	JARRERA EGOKIA	JARRERA DESEGOKIA
<p>UNEA ETA LEKUA</p>	<p>Pribatutasuna izateko, gomendagarria izango da leku apartatuago bat bilatzea.</p>	<p>Harengana iristeko zailtasuna, kanpotik ikusteko zailtasuna edo bakartzea.</p>
<p>JOKABIDEA ETA JARRERA:</p> <p>Biktimak gertatu zaionari buruz oinarritzko informazioa eman duela iruditzen zaigunean, gure babesa eta maitasuna adieraziko dizkiogu, eta hurrengo urratsen berri emango diogu.</p> <p>Espero izatekoa da biktimari galderak eta zalantzak sortzea kontatu duenaren ostean gertatuko denaz, eta, ziurrenik, galderak egingo dizkigu bere larritasunari eta ziurgabetasunari aurre egiteko eta baretzeko; argi eta garbi erantzungo diogu erantzuna dakigunean, eta, ez dakizkigun gaietan, laguntza eskatzeko jarrera hartuko dugu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Laguntza, arreta eta lasaitasuna: zaurgarri eta zalantzati senti daiteke nerabea. Babesteko gaitasuna. ✓ Nerabeari sinestea, eta hori ikusaraztea: kontatu duelako eskerrak ematea eta horren balioa berrestea. Ez epaitzea. Laguntza eskatu duelako harro senti dadin ahalbidetzea. ✓ Ez bihurtzea nerabea errudun inoiz. ✓ Gertatutakoari buruzko azalpenak ez aldatzea, ez eta xehetasunak ere. ✓ Irtenbide bat eman dakiokela azpimarratzea, bete ezin den gauzarik agindu gabe, betiere. Nerabearen fidagarritasuna nerabearen segurtasunaren parte da. 	<ul style="list-style-type: none"> X Biktimak esaten duena nabarmen zalantzan jartzea. Adibidez: "ziur zaude horretaz?". X Gehiegi galdetzea. Xehetasun edo argibide asko eman behar izateak eragina izan dezake haren oroitzapenean edo sinesgarritasunaren pertzepzioan. Adibidez: "zer gertatu da?", "nola gertatu da?", "norekin ari zaizu hori gertatzen?" "non gertatu zaizu?". X Kontatzen digutena maximizatzea, edo minimizatzea. Gertatutakoari buruzko presazko balorazio bat adierazten dute ziurrenik. X Bete ezin diren edo betetzetik izango duten ez dakiten zenbait alderdi berrestea edo agintzea. X Biktimak pentsatuta ez zituen egoeretatik abiatuta beldurra eragin dezaketean hitzak erabiltzea (biktima, kartzela, salaketa, polizia, atxiloteta). X Biktima eta erasotzailea aurrez aurre jartzea.